

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko apirilaren 24a / 259. zenbakia / 20. urtea

- **HERRIKO KONTUAK Ixaso Legorburu atxilotua** 06
- **MOILA BAZTERRETIK Aiora Larrañaga** 18
- **KIROLA Nazioarteko 15. estropada** 08
- **IRITZIA Manex Barrenetxea** 19
- **AIAKO BERRI Lore azoka** 11
- **HERRITARRA Onintza Manterola** 25



“Txinera ikastera joan nintzen”

Sei hilabete pasa ditu Iera Ondarrak Txinan bertako hizkuntza ikasten Pekingo unibertsitatean eta ez du bidaiatzeko aukera galdu.

**Portu ERRETEGIA**

Santia Etxe Alzola, 29  
943 89 44 04  
20809 AIA, ORIO

*kuakak laserako oinetan  
purrak erretik erretik...*

**SARASUA ERRETEGIA**

**Plater bereziak:** Arrain zopa  
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05/  
943 13 25 32

*eduzitegia*

**ANTILLA**  
*jatetxea*

Aizkorri kalea, 2 - TEL: 943 83 29 00

**ARKAITZ**  
Taberna

Pinxoak,  
plater kombinaluak  
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALIA, 4 Tel.: 943 83 16 57

*Gabon*  
TABERNA

plater kombinaluak  
aspitxoak

Tfnos: 943 83 06 09

**HAIZE BERRI**  
*taberna-jatetxea-kafetegia*

Plater kombinaluak,  
bokatxak,  
hamburgesak,  
ratiok,  
eguneko menua...

eta etxera eramatzeko zerbitzua!

Biba kalea, 8-10a I. TEL: 943 83 28 55

**Goizeko**  
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Lertxundi, 33 behea - ORIO  
Autobus parada ondoan

Igo zaitez haize berrietara!

**Galerna I**

943890416-677149932  
galerna1orio@hotmail.com

**TIZALA**

*kartetan jokatzeneko  
aspitxoak*

tel. 943 83 12 59

**KOLON TXIKI**  
*taberna-jatetxea*

Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**LORETXU JATETXEA**

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

**ASADOR XIXARIO**

Eusko Gudari, Kalea, 2  
Tel: 943 83 01 09 - ORIO

**Orioko Ogia**

**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA  
frontoi ondoan  
Tfnos: 943 83 01 89

oroztegia  
**MIRANDA**  
Jose M. Lertxundi

lantze, ato, lotxo, entakora...  
bestar diren aneto lanak  
egongo dituztegu

Erdaera biha. 1 -660 42 32 70- ZARAUTZ

**TANATORIO ZARAUTZ**

EUROFUNERARIAS TALDEA

**Hileta eta zerbitzu orokorrak**

\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
\* Aldearoko zerbitzua  
\* Belatorio gelak  
\* Koroak, estelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz  
Tel: 943 80 29 32 / Fax: 943 88 40 43  
e-mail: harrengi@harrengi.net

**Allianz**

**Marigre Zaldúa**  
aseguri agentea

Biba Onda, 10 behe-oina  
telefonoa: 943 13 47 60  
faxa: 943 83 57 52  
e-mail: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

ile agindegia  
**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**PERTSIANAK**

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Muzikama 600 70 52 27



# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea  
20810 ORIO  
943 83 15 27

karkara@karkara.com

**Editorea**

Karkara taldea kultur elkarte

**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**

Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**Mikel Aranzabal, Pat Cowie,  
Miren Etxebarria, Eli Lasa eta  
Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**

Lore Berasaluze

**Testuen zuzenketa**Miren Etxebarria eta  
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Manex Barrenetxea, Mainer Lasa,  
Unai Manterola eta  
Eneritz Odriozola**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

**Banatzzaileak**Ane Etxabe eta  
Ander Mujika (Orio)  
Ainize Sayago (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

**Lege gordailua** SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.100 ale

KARKARA ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berreman  
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

# Matrakaren bertsoak

**UNAI MANTEROLA****1**

Ostiral Santu goizez bialdu  
nitun bost emisario:  
Perona, Agustin, urangatarrak  
eta Tokolos propio.  
Kalbarioen anuntzioa  
bilakatu kalbario,  
Aita Lertxundi kale erdian  
norbait jarri zan serio,  
ta paradako markesinari  
oraindak ura dario.

**2**

Jokin Urangak odola ere  
ordutik bustia dauka,  
hobia zuen balde azpitik  
lehenago egina hanka.  
Haserre hartan matrakak soilik  
etzun egin zalaparta.  
Gutxiagotik izaten dugu  
herrian nahiko pankarta.  
Ur handituta ez da kabitzen  
koru azpian matraka.

**3**

Matrakazaharra inondiketzan  
gizonaren zoriona,  
ta iruditu *ganberro* batzuk  
tuna-haizez zuten broma,  
zerbait ikutu ziotelako  
haserre ezin doma.  
¡Tocalos! entzun eta Tokolos  
obedientea gizona...  
matrakaizan nunbait gizonai  
zerak ikuttu zizkona.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat .....	12,00 €
Bi modulu .....	24,00 €
Hiru modulu .....	36,00 €
Lau modulu .....	48,00 €
Sei modulu .....	72,00 €
Zortzi modulu .....	96,00 €
Orrialde erdia .....	120,00 €
Orrialde osoa .....	204,00 €

**IRAGARKIA BEHIN JARRITA**

Modulu bat .....	16,00 €
Bi modulu .....	31,00 €
Hiru modulu .....	47,00 €
Lau modulu .....	64,00 €
Sei modulu .....	95,00 €
Zortzi modulu .....	127,00 €
Orrialde erdia .....	174,00 €
Orrialde osoa .....	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com  
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

**LAGUNTZAILEAK**

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Erantzunei zehaztapenak

Zehaztasun bi oraingoan izen eta guzti datorren *Herritarra*-ri.

Zuk diozu: *Egia da Ikastola... izan zela* eta nik diot izan zela, gaur egun dela eta aurrerantzean ere gizarte eskola izaten jarraituko duela.

Aurrerago diozu: *ukaezina da Ikastolak izugarritzko lana...* eta egia da, baina ez zuk diozun lekuetan bakarrik, baita euskara ofiziala denetan ere. Izan ere, ez dugu ahaztu behar, gaur egun ere, Ikastolak direla lan gehien egiten ari direnak euskal irakaskuntza hobetzeko ahaleginetan.

Egoera aldatu egin dela diozu eta egia da; azkenengoa orain bertan abian dagoena. Administrazioak eragin handia du eskola guztietan, baita ikastoletan ere, eta orain gertatzen ari zaigunak *espainol* kutsu handiegia duen susmoa dut. Gauzak aldatuko dira eta, nik uste, txarrerako. Adibide bat jartzearren, euskal curriculum data dorkit burura. Ikastolen Federazioaren gidaritzapean, administrazioaren eskolak, kristau eskolak eta ikastolak, administrazioarekin batera, dokumentu bat adostu zuten. Bertan, beste gauza askorekin batera, esaten zen irakaskuntzan eus-

**GUTUNERAKO OHARRAK**

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com)

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

kara izango zela komunikazio hizkuntza... *euskararen ardatz* tutako *eleantzasun integratua*... Horrela izango dela iruditzen al zaizu?

Azken galderari erantzuteko toki gehiago beharko nuke. Bakarrik esan, Ikastolak dituen eraikuntza guztiak Orioko neska-mutikoak hezteko erabiltzen direla, eta gaur egun, oriotarren erabakiz, gehienak Ikastolara joaten direla. Ikastolakideok gure zergaz aparte, beste diru batzuk ere jartzen ditugu erakuntza horietan, baina inoiz Ikastolak irakaskuntza emateari uko egingo balio, erakuntza guztiak zuzen-zuzenean Udalaren eskuetara pasatuko liriateke.

Bukatzeko *enpatxatutako herritar batek* idatzitakoari buruz esan, nire aldetik, erantzunik ere ez duela merezi; bakarrik adierazi *enpatxatuta* baldin badago, jarrai dezala luzaroan egoera horretan.

ANTONIO CAMPOS

## Ez gelditu sinatu gabe

Apirilaren 4an hasi ginen gaztetxea sortzearen aldeko sinadurak jasotzen, *udaberrian gaztetxea loratu* lelopean, eta asteburu honetan bukatuko dugu ekimen hori. Horretarako, larunbat arratsaldetik igande eguerdira arteko egi-

taru jarraia antolatu dugu:

Larunbatean, 17:00etan, futbolin txapelketa egingo dugu Ibai Ondoko plaza gorrian. Bikoteka jokatu dugu eta 5 euro izango da izen ematea. 19:30ean, gaztetxea aldarrikatzeko elkarretaratzea egingo dugu udal-etxe parean. Jendea bilduta, 20:00etan, Etxeluzearen aurreko zelaira joango gara kanpalekua prestatzera. 21:00etan afari ederra egingo dugu. 5 euroren truke, jateko xolo-moa gaztarekin eta sagardoa edateko aukera izango da eta, afaldu bitartean, gaztetxearen antolaketari buruzko asanblada egingo dugu. Gero, 23:00etan, kontzertu akustikoa eta sormen gaua izango da, norberak bere trebetasunak erakutsi ditzan.

Igandean, 10:00etan, gosaria izango da 2 eurotan eta ondoren, gaztetxunaren ikur gisa, almendrondo eta sagarrondo gazte bana landatuko ditugu hantxe zelaian, gaztetxearekin batera haz daitezzen.

Ez ahaztu asteburu honetan bukatuko dela sinatzeko aukera. Dagoeneko firma mordo jaso dugu eta, zuk oraindik ez baduzu egin, garaiz zaude. Badakizue non eta nola.

OKK GAZTE ASANBLADA

**KARKARAKide izan nahi dut:** KARKARA aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago KARKARARI urteko 30 euroko laguntza emateko.

Izen deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Posta kodea: ..... Tel.: .....

Kontu korronteko zenbakia:





KARKARAREN BULEGOAN ESKATU DAITEZKE ARGAZKIAK EDO MATERIALA, DISEINUA EGITEKO

# Sanpedrotako festa programa diseinatzeko lehiaketa abian

**Aldizkariaren 20. urteurrena ospatzeko ekimenen artean, sanpedrotarako festa programaren diseinua egiteko lehiaketa antolatu du KARKARAK.**

1989ko ekainean lehen alea kaleratu zenetik 20 urte pasa direla gogoratzeko, gauza difereenteak antolatzeko gogoz gabiltza KARKARAN. Hori dela eta, aurtén, aldizkarian gehigarri modura agertuko den San Pedro jaietako festa programaren diseinua egiteko lehiaketa egingo dugu.

Diseinu grafikoa ikasi edo ta marrazteko edo diseinuak egiteko zaletasuna dutenei aukera ematea da lehiaketaren helburua, horrela KARKARAN parte hartzea bultzatu eta, era berean, talentu berriak aldizkarira erakartzeko. Aukera polita izan daiteke askozentzat.

## OINARRIAK

Lehiaketan KARKARAKO langilea ez den edonork parte har dezake eta ez da adin mugaririk ere izango.

Lanak DINA4 tamainako 4 orrialde bete beharko dituzte, hau da, portada gehi beste hiru programarentzat. Festa egunak gehiago izango balira ere, hiru orrialde horietara mugatu beharko da egitarau osoa eta euskaraz aurkeztu beharko dira.

Gaia librea izango da eta, KARKARAKOOK noizbait egin izan dugun moduan, urteko gertaera edo pertsona esanguratsuekin lan egin ahal izango da. KARKARAK aukeratuko du irabazlea eta, horretarako, originaltasuna eta ikusgarritasuna baloratzearaz gain, lanak Oriorekin eta euskararekin lotura izateari emango zaio garrantzia. Diseinua lantzeko,



Sanpedrotako festa programa umoretsuak egin izan ditu KARKARAK azken urteotan.

KARKARA

argazkiak edo bestelako materiala eskuratu nahi izanez gero, KARKARAREN bulegoan eskatu daitezke.

Lanak QuarkXPress edo

Photoshop programetan egin da aurkeztu beharko dira, testu eta guzti, CMYKra pasata.

Lanak KARKARAREN bulegoan aurkeztu beharko dira

eta maiatzaren 29a izango da horretarako azken eguna. CD batean grabatu eta gutun batean sartuta aurkeztu beharko dira, kanpoan diseinuaren titulua bakarrik jarrita. Idazlearen izen-deiturak eta telefonoa beste kartazal txikiago betean sartu eta CDarekin batera sartu beharko dira haren gutunean.

Irabazleak 300 euro jasoko ditu eta haren izena agertuko da festa programa kale-ratzen denean, ekainaren 19ko 263. KARKARAN.

## EKAINERAKO PRESTATZEN

Hogeigarren urtebetetzerako egitarau xumea prestatzen ari gara, kontzertu, hitzaldi eta abarrekin. Esaterako, ekainaren 19an, Patxi Zubizarreta idazlea hitzaldia ematea ekartzeko asmoa dugu.

## Nik adina urte ia

20 urte beteko ditu ekainean KARKARAK, ia nik adina, eta ez da harritzekoa, bertako langile naizenetik orain arte zenbat lan egin duten zuzenean ezagutzeko aukera baitut. Ez da erraza izaten behar den ostiraletan aldizkaria buzoietarako prest izatea, zer komerriak izaten dituen Lorek ni aguantatzen, baina euskarak merezi du halako esfortzurik, ezta? Lanean egiten dugu guk, baina beste askok musutruk egiten dute esfortzu hori; zorionak, eskerrik asko, ekin eta jarrai.

Talentu berrien bila gabiltza orain eta, jakin, badakit herrian badirela marrazten trebeak direnak; lan eta klase orduetan batipat. Anima zaitzete!

MIKEL ARANZABAL | KARKARAKO LANGILEA

ETA-KO KIDE IZATEA LEPORATU DIO JENDARMERIAK

# Fleuryko kartzelan sartu dute Itxaso Legorburu

**Urteak zeramatzan Orion bizitzen 28 urteko gazteak eta Heldu! herri kirol taldean aritzen zen.**

Laurence LeVert epaileak Itxaso Legorburu Paris inguruko Fleury-Merogis espetxean kartzelatzeko agindua eman zuen apirilaren 19an, deklarazioa hartu ondoren.

Apirilaren 15ean atxilotu zuten jendarmeez Legorburu, Mézières-en-Brenne-n.

ETA erakundeko kide izatea leporatu dio poliziak. Informazio iturriek hainbat bertsio zabaldu dituzte gertakariari buruz: Legorburu eta identifikatu ez duten beste gizonetako bat arma denda baten aurrean zeudela, bertako jabeak susmo txarra hartu eta jendarmeriari abisua eman ziola. Polizia agertzean, auto batean ihes egin omen zuten, baina istripua izan eta bertan atxilotu zutela Legorburu. Atxiloketaren unean, nortasun agiriak gain, agiri faltsuak eta pistola bat atzeman omen zizkioten, betiere, agentziek emandako informazioaren arabera.

Berarekin zegoen gizonetakoaren bila dabil Frantziako polizia.

## MIAKETAK

Apirilaren 16an, Legorbururen senideek Gasteizen duten etxea eta Aiztogile kaleko Garraxi taberna miatu zituen Guardia Zibilak. Egun horretan bertan, iluntzean hasi eta,



Autoarekin istripua izan ondoren atxilotu zuten, nonbait, Itxaso.

KARKARA

**Apirilaren 16an, iluntzean hasi eta, Orioko Abeslari kaleko pisua arakatu zuten, ia 14 orduz, hurrengo egunera arte**

Orioko Abeslari kaleko pisua arakatu zuten, ia 14 orduz, hurrengo egunera arte.

## ELKARRETARATZEA

Herritar talde batek deituta, 70 bat lagun bildu ziren herriko plazan atxiloketaren hurrengo egunean Itxaso Legorburu aska dezaten eskatzeko. 20:00etan hasita, ordu erdiko elkarretaratze isila egin zuten *Itxaso askatu* lemapean.

Hilaren 17an, berriz, dispartzioaren aurkako kontzentrazioa egin zuten, Etxerat elkarrekin sakabanaketaren aurka egin zuen biraren barruan.

## LABUR

### JENDARTEA

## Diru laguntzak

Orioko Udaleko Gizarte Ongizate batzordeak Gara-penerako Gobernu Kanpoko Erakundeentzako eta gizarte lanetan aritzen diren bestelako elkarrentzako diru laguntzak emateko deialdia egin du. Apirilaren 30a izango da eskari orria Udal bulegoetan aurkezteko azken eguna. Informazio gehiago: [www.karkara.com-en](http://www.karkara.com-en).

### TEKNOLOGIA

## WiFi gunea

18 urte baino gehiago dutenentzako WiFi gunea egun osoan izango da hemendik aurrera kultur etxeak: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

Liburutegikanpoan 10 lagunentzako gune berezia egokitu du horretarako Udalak.

### OPORRAK

## Krisirik ez

Aste Santuko oporraldiek —datuok apirilaren 8tik 13rakoak dira— bisitari ugari ekarri dute herrira: turismo bulegora iaz baino %35 lagun gehiago joan da informazio eske: horietatik %5,21 oriotarrak izan ziren eta % 41,32 Euskal Herrikoak. Gainerakoan, katalanak eta espainiarrak izan dira gehienak. Bestalde, herriko ostatuak (kanpina izan ezik) beteta egon dira egun horietan.

**Dorronoro Denda**  
1961etik zure enbrea  
AUKERA HANDIAGOA  
FRUTATEGIAN  
Tel 943 83 09 37

**azkue**  
Tf: 943 13 04 38

Kinkladenda - Ume arropa  
**argine**  
www.lasone.com/argine  
Tel. 943 13 48 89  
%25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN



MAIATZAREN 6A IZANGO DA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA

# Hondartzak eta kanpineko igerilekua zaintzeko lehiaketa

**Kontratu luatzeko aukera izango bada ere, hasiera batean, hiru urteko iraupena izango du kontratuak: 2009tik 2011ra.**

Antilla eta Oribarzar hondartzetako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzuak eta udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzua, ekainaren 6tik irailaren 13a arte, aurtengo denboraldian nori eman erabakitzeko lehiaketa egingo du Orioko Udalak eta datozen hiru urtetarako egingo da kontratazioa. Luzatzeko aukera izango da gero, beti ere, gehiezez, 6 urte egin arte.

## BALDINTZAK

2009ko denboraldiari dagokion kontratuaren gehieneko prezioak 87.941 eurokoa izan beharko du, BEZ barne.

Langile kualifikatuak izateaz gain, lan segurtasunari, osasunari, gizarte segurantzari eta lan kontuei dagozkien xedapenak bete beharko dituzte hautagaiek, beharrezko organoak eratu.

Kontratuaren behin-behineko adjudikaziodunak hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, adjudikazioaren zenbatekoaren %5 eman behar du berme gisa eta irabazlea zein den jakiten den unetik kontatuta, 15 eguneko epea izango du horretarako.



Ekainaren 6an hasiko da hondartzak zaintzen lehiaketako irabazlea.

KARKARA

## IRIZPIDEAK

Kontratuaren adjudikazioa egiterakoan, irizpide hauek hartuko ditu kontuan Orioko Udalak: 75 puntu balioko ditu txosten teknikoak —besteak beste, eskainitako baliabideak eta esperientzia baloratu—; eta 25 puntu, diru proposamenak.

## AURKEZTEA

Lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 15 egun baino lehen —maiatzak 6rako—

aurkeztu beharko dira proposamenak. Kontratazioaren espedientea eta dokumentazio teknikoa Orioko Udaleko Idazkaritza Nagusian utzi beharko dira, astelehenetik ostiralera 08:30etik 14:30era.

Aurkeztutako eskaintzak jendaurrean jarriko dira. Horiek aztertu eta gero 3 hilabetean egingo da behin-behineko lizitazioa.

Azken urteetan DYA erakundearen ardura izan da Orioko hondartzetako baineru zerbitzua.

Informazio gehiago nahi

**Kontratuaren adjudikazioa egiterakoan, 75 puntu balioko ditu txosten teknikoak eta 25 puntu diru proposamenak**

izanez gero, [www.karkara.com](http://www.karkara.com) edo [www.oriora.com](http://www.oriora.com) web guneetan zintzilikatuta dauden oinarrietan eskura daiteke.

**Automóviles ZARAUTZ**  
CITROEN ZERBITZU OFIZIALA  
Kalkulu berrak  
943 83 13 50  
ZARAUTZ. TEL. 943 13 13 50

**RAMIRO**  
Jaunarte erreportajeak  
30-300 euro artean  
943 83 10 48  
[www.fotoramiro.com](http://www.fotoramiro.com)

**Pinturak ELKAR**  
pintura eta paperatze lanak zoru leunketa  
Abendaño industrialdea  
943 83 08 45 / 610 80 23 35  
ZARAUTZ



Sporting Club Caminhense taldekoak izan ziren iaz txapeldun.

J. M. OLASAGASTI

EZINDUEN ESTROPADA IZANGO DA AURTENGO BERRIKUNTZA

# Nazioarteko estropada eta *Orion Jai!* hilaren 25ean

**Nazioarteko estropada izango da Orion hamabostgarrenez Ingalaterrako, Portugalgo, Herrialde Katalanetako, Galiziako eta Euskal Herriko talde onenekin.**

Arraunketa Olinpikoko Nazioarteko 15. estropada izango da apirilaren 25ean Orion, arratsalde, 16:30ean hasita. Bosgarren urtea da jarraian egiten dela lehiaketa.

Mariaerrotatik zubiraino dauden 1.000 metroetan launa taldeko 14 txanda izango dira 90 minututan eta lema-zaindun zortzikoan jokatu dute gizonezkoek eta binako laukoan emakumezkoek.

Gizonezkoetan, Ingalaterrako Molesey Boat Club ospetsuarekin batera, Portugalgo azken txapelketako hiru talderik onenak arituko dira: Sporting Club Caminhense, Clube Nautico Viana eta Gina-

sio Clube Figueirense. Horien aurka Santurtzi, Koxtape, Hondarribia, Orio eta Galiziako eta Herrialde Katalanetako talde onenatarikoak arituko dira nor baino nor.

Emakumezkoetan, berriz, Portugalgo, Espainiako eta Euskal Herriko taldeak arituko dira, baina oriotarrak ez dira tartean izango.

Berrikuntza modura, aurtengo edizioan ezinduentzat estropada ere izango da lehen aldiz eta *skiff*ean jokatu da. 500 metro egin beharko dituzte lehian horiek eta tartean izango dira Joxean Iglesias eta Patxi Sagarna oriotarrak.

## ORION JAI!

Estropada aitzakiatzat hartuta, *Orion Jai!* eguna antolatuko du Udalak beste behin ere, giroa alaitzeko. Berdel pintxoak jateko eta ardoa dastatzeko aukera izango da 12:00etan eta Julio Aranburuk

**Lau eta erdietan hasiko da nazioarteko estropada eta 90 minututan launa ontziko 14 txanda jokatu dira**

sokasaltoan aurrekoan lortu ez zuen errekorra egiten saiatuko da 19:00etan: minutu batean 240 salto eman. Haurrentzako puzgarriak eta txaranga ere izango dira.

## ALDUNDIAK SARIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Orioko Arraun Elkartearen sari-tu du beste 15 kirol talde eta 130 kirolarirekin batera –Oiana Blanco ere tartean zen– iaz Espainiako txapelketa irabazteagatik.

## LABUR

### FUTBOLA

## Liga irabazi infantilek

Apirilaren 5ean Orio FTko infantilek 6-0 irabazi zioten Intxaurrendori eta, ligako igoera fasea bukatzeko bi partida falta badira ere, lehen postua ziurtatuta dute matematikoki. Beraz, hurrengo denboraldian Ohorezko Mailan izango ditugu.

Ez da harritzekoa dagoeneko dena erabakita izatea, igoera faseko 12 partidak irabazi dituzte eta ligan bakarra galdu eta beste bat berdindu. Hurrengo partida apirilaren 15ean jokatu dute, Mendibeltzen, Oartzuneko kontra.

Bestalde, Joseba Agirrereren Real Union taldea ere Bigarren B mailako txapelduna da dagoeneko, eta aukera izango du Bigarren Mailan jokatzeko hurrengo urtean.

### PLAIEROAK

## Kepa Kopako finalean da

Juan Irigarai 15. Kopako finala jokatu du Kepa Loidi taldeak apirilaren 26an Zarauzko plaian 10:45ean, eta Itxaski taberna izango du aurkari.

Xixario taldeko neskek, ordea, nahiz eta azken partida 1-0 irabazi, ezin izan zuten aurrera egin eta bukatu dute denboraldia.

### SOFBOLA

## OBB bigarren

Orioko Bate Bizkorrek taldea bigarren doa Ohorezko Mailako ligan, lehen itzulian bukatzeko partida baten faltan. Asteburu honetan Valentzialiderraren kontra jokatu dute haien herrian. Orain arte, zortzitik zazpi partida irabazi dituzte.



IBAN MARITXALAR | SPINNING IRAKASLEA

# “Aspertzen ez duen kirola da spinninga: irekia eta osoa”

**Badira hiru urte Iban Maritxalar usurbildarra Karela kiroldegian irakasle dela. Bizikleta gainean jarri eta musikaren erritmoari jarraituz, martxa ederrean aurkitu du.**

## Orion hasi al zinen spinning irakasle lanetan?

Beno, lehen urte hartan han eta hemen ibili nintzen irakasle: Tolosan, Lasarten eta hemen ere bai. Hurrengoan, Tolosa utzi eta Astigarraga hartu nuen eta, hirugarrenean, berriz, Orion eta Usurbilen ari naiz.

Edozein kiroleko irakasle izateko bi urteko Goi Mailako modulo bat egin nuen. Horrez gain, spinningeko ikastaroa egin nuen gero, duela sei bat urte.

## Zer erakarri zintuen, bada?

Probatzerakoan konturatu nintzen gustuko nuela spinninga eta nahikoa argi gertatu zitzaidan bizikleta gainean arituz irakaslea izan nahi nuela. Egia esan, pentsatzen jarrita, gustuko duzun kirola egin eta hortik bizitzeak asko baliodu.

## Lehendik ere bizikletaz ibiltzen ohituta al zeunden?

Ez. Bizikletak ez ninduen bereziki erakartzen eta ez nintzen asko ibiltzen.

## Nolako erantzuna izan zenuen Orion?

Hasiera-hasieratik lagun asko elkartu ginen, oso koardila polita osatu genuen, eta berdin jarraitzen dugu. Aspertzen ez duen kirola dela dirudi; gustura dagoela spinningzalea.

Gero eta jende gehiago hurbiltzen zaigu eta niri ere asko motibatzen nau horrek berak.



Ibanek egunero ematen ditu eskolak Karela kiroldegian.

KARKARA

**Emakumezkoak dira spinningean aritzen diren gehienak. Kuriosoa da: gimnasioan, ordea, gizonezkoak dira nagusi**

**Gizonezkoek kirol gehiago egiten omen dute. Spinningean ere bai?**

Bada, ez. Emakumezkoak gehiago dira kasu honetan; nabarmen, gainera. Kuriosoa da, zeren errepidean edo gimnasioan bertan gizonezko gehiago dabil bizikletan, bai-

**Nire kabuz prestatzen ditut saioak, etxean; musika entzunez, spinning-eko bizikleta gainean jarri gabe**

na musikarekin, eta barruan, ez dira animatzen. Ez dakit zergatik izango den horrela, kirol irekia baita spinninga.

**Zenbat eskola ematen dituzu egunean?**

Ez naiz spinning irakasle bakarra Karelan. Reginak eta

Mirarik ere eskolak ematen dituzte.

Nik egunean bi bat ordu pasatzen ditut Orion bizikleta gainean; goizean, eguerdian edo arratsaldean. Hala ere, zazpi ordu egiten ditut hemen egunean: igerilekuko irakasle eta sorosle eta jubilatuen gimnasiako eta gihartoneko maisu ere jarduten dut. Hemen bukatutakoan Usurbilera joaten naiz eta, han beste ordu bete edo egiten dut pedalak astintzen. Kiroletik bizi naiz.

## Etxera leher eginda iritsiko zara orduan?

Halaxe da. Hala ere, asteburuetan ere kirola egitea gustatzen zait. Ezberdina da lan bezala edo gozatzeko hartuta. Larunbatetan eta igandetan kirola kalean egitea beharrezkoa egiten zait, gehiago disfrutatzen dut.

## Nola prestatzen dituzu saioak?

Nire kabuz prestatzen ditut, etxean. Eseri eta musika entzunez osatzen dut hurrengo klaserako materiala, spinning-eko bizikleta gainean jarri gabe, ez baitaukat. Normalean, hiru astetik behin edo koreografia berriak ekartzen saiatzen naiz.

Lehen zirriborroa prest dudanean, bizikleta gainean jartzen naiz eta nik prestatutakoa txirrindako erritmoarekin ondo datorren ikusten dut.

## Zenbat denbora pasatzen duzu saio bat prestatzen?

Dezente, kar, kar... Abestiak entzun, gutxi batzuk aukeratu, horiek prestatu... hiruzpalau ordu joaten zaizkit. Baina, badakizu, gustuko tokian aldaparik ez dela eta pozik aritzen naiz.

MIKEL PORTULARRUME | ARRAUNLARIA

# “Ligako txapeldunaren bandera ekarri nahiko nuke”

TKE ligan debuta 2003an Castrorekin egin ondoren, hirugarren urtea du Mikel Portularrume arraunlariak Urdaibai taldean. Aurten ere tostarrean izango da udazkena iritsi arte.

## Hasi al zarete uretan entrenatzen?

Neguan lehorrean eta hemen, Orion, aritu garen bezala, hemendik aurrera astean lauzpabost aldiz-edo Bilbora, erriean aritzeko, edo, itsasoan egiteko, Bermeora joango gara. Trainerillekin hasiko gara asteburu honetan —Ondarroan dugu indarrak neurtzeko lehen aukera— eta, gero, segituan, traineruen liga dator, uztailean.

Hala ere, batekin hasiak dira, baina nik pisu handia dut ontzi mota horretarako eta ez dut parte hartzen. Arina eta txikia behar da izan batelera-ko.

## Sakrifizioa izango da, ba, haraino joan beharra.

Bidaia luze egiten da. Lanetik 16:00etan ateratzen naiz, azkar bazkaldu eta 17:15ean autobus geltokian geratzen naiz Xanti Zabaleta eta Migel Anjel Millaresekin. Arroako ordainlekuan Xabier Bereziartua *Txato* jasotzen dugu, Gernikan kafea goxogoxo hartu eta entrenatzea tokatzen zaigun lekuraino joaten gara. Hitz eta pitz aritzen gara kotxean, normalean arraun eta ehiza kontuak astinduz.

Etterakoa ere ez da samurra izaten. Giroa asko aldatzen da, gainera, segun eta saioa nolakoa izan den: gus-tura atera bagara nahikoa algara eta txorohaize izaten dugu; ez bada horrela, berriz... 22:30-23:00ak aldera iristen gara herrira.



Hemendik aurrera entrenamendu saio gogorrak izango ditu Mikelek.

KARKARA

**Patxi Bilbaok baino askoz gehiago eskatzen digu oraingo entrenatzaile Fran Gonzalezek; zorrotzagoa da**

**Asteburuak ere arraunean egiten dituzue. Ez al dago deskantsurik edo?**

Astean egun bat izaten dugu jai: asteartea, gehiengutan.

Asteburuan ez dago parrandarik egiterik. Dagoneko ahaztu ere egin zait zer diren, kar, kar.

**Ez gara trainerillan bat ere ibili eta asteburu honetako estropada entrenamendu bezala hartuko dugu, seguru asko**

**Entrenatzailea ere berria omen duzue.**

Patxi Bilbao joan eta Tiranen aritu izan den Fran Gonzalek galiziarra etorri da, bai.

**Eta zer moduz?**

Gogorra da, baina gusturra nago, tarteka gure ateraldiak eta berotualdiak izaten

ditugun arren. Aurrekoak baino askoz gehiago eskatzen digu Franek; zorrotzagoa da. Dena zuzen eraman nahi izaten du, kontrolatuta: pisutik hasi eta teknikaraino. Gero, behar bezala luzitzeko, sufritu beharra dago; idia jango eta ahoa itxi behar. Denboraldia bukatzean izaten dira gero komeriak.

## Zer lortu nahi duzue aurtengoan?

Ez gara trainerillan bat ere ibili eta Ondarroako estropada entrenamendu bezala hartuko dugu, seguru asko. Entrenatzaileak hiru ontzi ateratzeko adina lagun bagarela dio, baina nor zeinekin joango den eta zein postutan... ez dakigu; egunean bertan esango digu. Txapelketetara —Bizkaikora, Euskadikora—, berriz, bi ontzi eramango ditugu. Traineruari ematen zaio garrantzirik handiena eta trainerilla harako prestatzeko erabiliko dugu.

Bestalde, lehen aldiz aurkeztu du Urdaibaik aurten, batela. Millares eta Bereziartua dabilta onenek osatutako ontzian, Urdaibai A-n.

Nikneronek, nahiago nuke Ligako txapeldunaren bandera ekarri etxera. Aurreko biak ekarri ditugu eta hirugarrena ekarri gero, sari bereziren bat ere ba omen da. Ilusio gehiago egiten dit horrek Kontxako bandera irabazteak baino.

**Aurtengo traineru ligako eta Kontxako bandera irabazteko faboritoak ematen ausartuko al zinateke?**

Uf! Goizetxo iruditzen zait oraindik. Gainerako traine-ruak nola dauden ikusteko aukera gutxi izan da orain arte eta oraingo ez nuke izenik emango.



10:00ETATIK 18:00ETARA EGONGO DA ZABALIK HILAREN 25EAN ETA 26AN

# Kalitatezko 7. Landare Azoka izango da Iturraranen

**Landareak loretan daudela, apirilaren azken asteburuan, 25ean eta 26an, egingo da aurten Iturrarango Landare Berezien 7. Azoka.**

Hilaren 25eko 10:00etan irekiko ditu ateak Pagoetako Iturrarango Landare Berezien 7. Azokak. Goiz eta arratsalde, 18:00ak arte, 48 landare postu izango dira larunbatean eta igandean.

Hainbat herrialdetako ehunka landare mota hartuko ditu azokak: zitrikoak, kaktusak, barazkiak, tropikalak, banbuak, usaundunak, haragijaleak, zuhaitz haziak, fruta arbolak... Inguruetako eta urrutikoak ere bai, esaterako, Australiako, Zelanda Berriko eta Patagoniako espezieak ekarriko dituzte Frantziako, Galiziako, Italiako, Herrialde Katalanetako, Espainiako eta Euskal Herriko landarezaleek. Horietatik lehen aldiz bisitatu gaituzte honako hauek: Frantziako *Bordillon Irisek* (Irisak, Hemerocalisak, Peonia belarkarak eta ekialdeko mitxoletak dakartza), *Pépinère Fleurs du Sudek* (landare mediterraneanekin eta subtropikalekin), iratzeetan aditua den *Fougeres d'ici eta ailleurs-ek*, Baionako *Louis Bex Bonsaisek* (bonsaiak ekarriko ditu), sukaldean erabiltzeko landareen bilduma dakarren Malagako *Plantaromedek*, eta Patagoniako landaredia erakustera datorren A Coruñaiko *Viveros Florgali-ciak*.

Aurreneko edizioiko prezio bera izango du sarrerak: 3 euro—12 urtetik beherakoek ez dute ordaindu beharko— eta egun berean erosi beharko dira azokan bertan.

## JAKIAK

Antolatzaileek adierazi duteenez, landareez gain saltoki



Ohiko eta ez hain ohiko landareak izango dira Iturraranen.

KARKARA

**48 saltokitan banatutako ehundaka landare izango dira ikusgai: kaktusak, barazkiak, tropikalak...**

gastronomikoak ere izango dira Iturraranen: Agerreburu, antzinako euskal gaztak eta Orortegi gaztategiek etxean egindako produktuak salduko dituzte; Aiako sagardoa jarriko du dastagai Arizmendik; eztigaiak izango ditu salgai Eugenio Elortzak; Goiabe sukaldaritzako ekologikoak Euskal Herriko bertako produktu ekologikoak ekarriko ditu; eta Goierriko talogileek eta Zortzikote kantinak taloak eta ogitartekoak salduko dituzte.

## NOLA IRITSI

Trenetako datorenak Zarauzko tren geltokian—herrikoan—jaitsi beharko du eta Iturrarango ateraino eramango duen doako autobusa izango du han zain.

Autoz hurbildu nahi duenarentzat, aldiz, bi aparkaleku berezi jarri dituzte antolatzaileek: Orion bat, Oribararren, eta Aiako herrigunean bestea. Aparkalekuetan hartuko dituzten autobusez joan beharko dute horiek ere lorategi botanikora.

## AHOLKUAK

Oinetako erosoak, produktuak etxera eramateko poltsa egokiren bat edo beste, eta aterkia—eguna ilun samar baldin badago—eramatea aholkatzen dute Landare Azokako antolatzaileek. Iturrarango parkean kutxazain automatikorik ez dagoela ere gogorarazi dute, bestalde.

## LABUR

### HIRIGINTZA

## Udaletxeko lanak hasi dira

Apirilaren 8ko udalbatzarrean aho batez erabaki zen bezala, Construcciones Astiazaran enpresak egingo ditu udaletxea berritzeko lanak. Apirilaren 27an hasiko dira lanean eta 284.850 euroko gastua izango du. Azarorako bukatzea espero da.

Lanek dirauten bitartean kultur etxean izango dira udal bulego guztiak. Telefono zenbakiak, berriz, lehengo berak izango dira.

### FESTA

## Txakolin Eguna

Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere—frontoian jarri behar izan ziren saltokiak—, giro ona izan zen apirilaren 19an, Txakolin Egunean. 352 kilo txekor jan eta txakolin botila ugari edan ziren.

## Euskal eskola publikoaren jaiak

Sortzen-Ikasbatuazek eta Aiako Udalak Euskal Eskola publikoaren aldeko festa antolatu dute maiatzaren 3rako. Goizean mendirteera izango da guraso eta ikasleentzat. 12:00etan Porrotxek eta Txapasek aurkeztutako emanaldia eskainiko dute jaiaren parte hartzen duten eskola eta ikastola publikoek: kantua, dantza, antzerki lanak... izango dira.

Kantu bazkaria izango da Kanuanen gurasoentzat eta txartelak lortzeko 943 30 35 40 telefonora deitu beharko da. Bitartean, haurrek frontoian bazkalduko dute, begiraleekin tailerretan jolastuz.

16:00etan erromeria izango da Modestorekin.

## AIAKO LEHIOA

# Gorputz perfektuaren bila

**U**rtero bezala, urte sasoi honetan *zaintzen* hasten gara, udan ahal den gorputzik ederrena prest edukitzeko.

Neguan arropa gehiago erabiltzen dugu, bata bestearen gainean, tipulen antzera. Eguraldi ona hasten den neurrian, txaketa eta jertse lodiak kentzen hasten gara eta orduan... Jainko maitea! A, zer gerri buelta! Azaroan eta abenduan ederki sartzen ziren babarrunak, odolki eta txerrikostilak, baina jaki eder haien ondorioak nabariak dira orain gorputzko hainbat tokitan.

Gimnasioan hastea beharrezkoa bilakutzen da: aerobika, igeriketa edo saltsako klaseak... berdin du, baina kiloak nola edo hala kendu behar dira.

Kremak? Noski! Hanketa-

rako, aurpegirako, ipur-masailetarako eta besoetarako, behar bada, erosi egin behar.

Dieta? Nola ez! Ahoa itxi eta ea kilo madarikatu horiek jaitzen diren behingoz.

Burutik jota gaude. Zaintzea ondo dago, beharrezkoa dela esango nuke nik, baina jende ugari zeharo obsesionatuta bizi da.

Zer da, baina, gorputz perfektu bat? Argal egotea? Zelu-

litisa edota zimurrak ez edukitzea aurpegian? Perfekzioa ez da existitzen. Gu eta gure gorputzaren arteko harremana hobe edo okerragoa izango da, etapa ezberdinetatik ere pasa gaitezke bizitzan, baina gure gorputza onartzea, errespetatzea eta maitatzea ezinbestekoa da txorakeriak egin nahi ez baditugu behintzat.

Modan dagoela botox delakoa edo bularretan sili-

kona sartzea? Bai, baina nork daki ekar ditzakeen kalteak hemendik urte batzuetara? Ez nago zirugiaren aurka, baina batzuetan iruditzen zait jende oso erraz sartzen dela kirofano batetan.

Gizakia ez da gorputza soilik. Gorputza gure ataletariko bat besterik ez da. Izaera ere hor dago. Pertsona bat ikusten dugunean kanpoko itxuran fijatzen gara lehenengoz, baina pertsona bat gustatzeko haren barrena ezagutu behar dugu. Umorea, sensibilitatea, goxotasuna, jatoritasuna, dituen trebetasunak... faktore asko daude gizaki bat osatzen dutenak, fisikoaz gain.

Gauza guztiekin bezala, oreka lortzea da, egin genezaken gauzarik hoberena.

MAIDER LASA

**Zaintzea ondo dago, beharrezkoa dela esango nuke nik, baina jende ugari zeharo obsesionatuta bizi da**

**Gure gorputza onartzea, errespetatzea eta maitatzea ezinbestekoa da txorakeriak ez egiteko**

## TXOKOAK ETA JENDEA



## Finalera iritsi dira!

Argazkian dituzue 6. mailakoen kategorian plaierotan parte hartu duten nesken futbol taldekoak, nahiz eta gehienak oraindik 5. mailan egon. Eta ez dute balentria txikia egin, apirilaren 26an Zarauzko hondartzan jokatuko diren finaletarako sailkatu baitira. Irabazi ala galdu, zorionak Irati, Kaoutar, Libe, Ainara, Udane, Leire, Ainhoa, Maddi, Itziar, Nora eta Garazi joakalariei, entrenatzaileari eta Lardizabal eskolako guztiei.





Hou Hai parkean gauza berriak probatzen.

I. ONDARRA

IERA ONDARRA | HIZKUNTZA IKASLEA

# “Planak egiten ari naiz Txinara berriro joateko”

PAT COWIE

## Nolatan joan zinen Txinara?

Hizkuntzakikastea gustukoa izan dut beti. Itzulpen-gintza ikasten hasi nintzen Gasteizen, baina utzi egin nuen, Zuzendaritzako Idazkaritza ikasteko, Donostian. Ingelesa, alemanera eta frantsesa ikasten ari nintzela etorri zitzaidan txinera ikasteko gogo. Azpeitian hasi nintzen lanean eta bertan ezagutu nuen txinera ikasten ari zen lankide bat. Bi aldiz pentsatu gabe erabaki genuen Txinara

*Txinera ikasi nahi zuen Ierak eta Pekinera joan zen 6 hilabete pasatzera. Izugarritzko esperientzia ona izan omen da eta bueltatzeko irrikitan dago. Gurasoak ere han izan ziren alabak ezagututakoa ikusi nahian. Hirurekin izan dugu solasaldi interesgarria.*

joango ginela, ikastera. Ordu-rako dirua ari nintzen aurretzen hori egiteko. Internet bidez lortu genuen Pekingo uni-

bertsitatean sartzea eta 6 hilabete iraungo zuen ikastaroa aukeratu nuen, astean 30 ordu klaseekin.

## Gogorra egin zitzaizun bat-batean ikastaro trinko batean sartzea?

Hasieran, bai. Ordu asko sartzen nituen, eta sentitzen nuen ez nintzela denera iristen, etxean ere ikasten jarraitu behar bainuen, baina laster hartu nion neurria. Nirekin joan zen lagunarekin erdibana nuen erresidentziako gela eta gure artean oso ondo moldatu ginen. Klaseetan, berriz, txineraz gain, ingelesa asko praktikatu nuen, gelako kideak munduko bazter guztietatik etorritakoak

baitziren. Gure gelan, esaterako, munduko ia bazter guztietako jendea zegoen: Hungaria, Ekuador, Estatu Batuak, Holanda, Turkia, Alemania, Suedia, Australia, Errusia, Mongolia, Kazakhastanekoak... eta baten bat faltako zait. Oso esperientzia aberasgarria izan da.

### **Zein izen zen zure aurreneko inpresioa?**

Beroa! Izugarritzko bero handia eta hezea egiten zuen. Txinan dena neurri handian egiten dela ematen zuen: trafikoa, kaleak, jende kopurua... Pekin nahiko berrituta dago Joko Olinpiarrek bertan egin zirelako, baina gu joan aurretik leku asko omen zegoen zahartuta, espaloirik gabe, zaindu gabe. Gaur nonahi ikusten dituzue eraikuntza altuak, neonezko argiak, merkataritza zentroak... beldurgarria.

Gero, erresidentzian zer aurkituko genuen ere ez genekien. Gelan sartu, neka-neka eginda, eta jota geratu ginen! Ohola eta 5 zentimetro lodi eskaseko koltxoia ziren ohea. Zartako bat hartu genuen, baina ohitu egin ginen eta bizkarreko minik ez genuen izan. Sukalde bat ere bagenuen, baina kalean merke-merke jaten genuen euro bat edo biren truke. Ez zuen merezi sukaldean jardutea hain merkea izanda kalean. Leku askotako janaria probatzeko aukera zegoen: Japon, Korea, EEBB, Italia, herri musulmanak...

Hizkuntzak eta kultura ikasteko unibertsitatea zen gurea eta txinera ikasi nahi zuten bost bat milioi ikasle pasatzen ziren handikurtero, beste hizkuntzak ikasten ari ziren txineraz gain.

### **Eta ikasi egin zenuen?**

Zerbait bai, baina ez da hizkuntza erraza eta, nik uste, urteak behar direla ondo ikasteko, ordu asko emanda. Dena ikasi behar duzu: irudia, hitza, doinua, hizkuntzaren estruktura... Pinyin ere erabiltzen dute irakasteko; asmatutako hizkuntza da, non

ahoskeraren arabera latindar letra idazten den. Asko laguntzen du, baina irakasleek ikasi behar izan dute atzeritarrei erakusteko, bestelakarakterak bakarrik erabiliko lituzkete.

Kalean erabiltzen genuen ikasitakoa eta dendetara joaten ginenean asko laguntzen zigun tratua egiteko. Asko estimatzen zuten guk txineraz zerbait esatea.

### **Zer moduz moldatu zinen hango janariarekin?**


Probatzen ibili ginen. Menua ekartzen zutenean txineraz gehi ingelesez edota argazkiak erakutsiz izaten zen. Txina oso handia da eta probintzia askotako janariak dituzte. Azkenean, begitik sartzen zitzaizuna hartzen zenuen eta kito. Askotan, ez nekien zer jaten ari nintzen ere! Batzuetan malko bizitan bukatzen nuen, eskatutakoa hain zen pikantea! Behin ez zitzaidan ezer falta izan eskopioi frijitua jateko kaleko postu batean: kakalardoa, itsazarrak... halakoak zeuzkaten. Gogoarekin geratu nintzen. Tipikoena ziren arroza edo noodlesak. Hemengo gominoak bezala, han azukrean kontserbatutako frutak jaten zituzten gozoki moduan. Tea hartzen ikasi nuen eta oraindik ere sarri-sarri hartzen dut.

### **Klasetik kanpo zer egiten zenuen?**

Turismoa ahal zen neurrian. Pekinek 17 milioi biztanle ditu eta gauza asko dago ikusteko: parke handiak, palazioak... Azokara joaten nintzen arropa erostera eta, merkea zenez, beharraren arabera erosten nuen. Zeta azokan marka faltsifikatuak zeuden eta, tratua egin ondoren, merezi zuen han erostea: bakeroak 8-10 eurotan, oinetakoak 6tan, kamisetak 2-3tan...

### **Eguraldiarekin nola moldatu zinen?**

Behin aurreneko bero patsara ohituta, ondo. Botilako ura izoztuta saltzen zuten, azkar epeltzen zelako. Baina



gero, hotz handia eta haizea ere ezagutu nuen. Zero azpitik 16 gradutara iritsi ginen! Udan, laku batean aritu ginen pedaloetan atzera eta aurrera, eta laku berean patinatu genuen neguan. Pentsa! Baina hotz lehorra zen eta ez nuen halako hotz jasanezinik sentitu. Euririk ia ez zuen egi-

ten eta, horren ondorioz, ur falta handia dago Pekinen.

### **Eguneroko bizitzan zerbaiten falta sumatzen zenuen?**

Bukaerarako hemengo gustura jango nituen. Gurasoak joan zirenean, lentejak eskatu nizkien guk egiteko.





I. ONDARRA

Nazka-nazka eginda bukatu nuen, beti etxetik kanpo jateak nekatu egiten duelako.

#### **Txinatarrekin harremanak egitea posible al zen?**

Ikasleekin zertxobait bai, baina zaila zen. Hemen bezala, atzerritar bat azaltzen bada ez da zure koadrilan sartzen.

Han berdin, eguneroko egin-beharretara jartzen dira, baina, gainera, haiek dirudun bezala ikusten zaituzte; gutxiago izango balira bezala, askotan.

Unibertsitatean familia batekin bizitzeko edo ingelesa ikasten ari zen txinatar batekin orduakemateko auke-

#### ASMOA

**“Azpeitian hasi nintzen lanean eta bertan ezagutu nuen txinera ikasten ari zen lankide bat. Bi aldiz pentsatu gabe erabaki genuen biok joango ginela Txinara”**

#### IKASKIDEAK

**“Gure gelan, esaterako ia munduko bazter guztietako jendea zegoen: Hungaria, Ekuador, Estatu Batuak, Holanda, Turkia, Alemania, Suedia, Australia, Errusia, Mongolia, Kazakhanstan... eta txinerez gain, ingelesa asko praktikatu nuen”**

#### HIZKUNTZA

**“Ez da erraza eta, nik uste, urteak behar direla ikasteko, ordu asko emanda. Dena ikasi behar duzu: irudia, hitza, doinuak, hizkuntzaren egitura...”**

#### JANARIA

**“Askotan ez nekien zer jaten ari nintzen ere! Batzuetan malko bizitan bukatzen nuen, eskatutakoa hain zen pikantea!”**

#### EROSKETAK

**“Zeta azokan marka faltsifikatuak aurkitzen zenituen eta, tratua egin ondoren, merezi zuen erostea: bakeroak 8-10 eurotan, oinetakoak 6 eurotan, kamisetak 2-3 eurotan...”**

#### BIDAIK

**“Maiatzean joango naiz berriro oporretan, eta lana bilatuko banu... Egin beharra daukat!”**

razegoen, baina nahikoa nuen hartutako ikastaroarekin.

#### **Bidaia asko egin zenituen?**

Unibertsitatearekin aste-bete pasa genuen Shangai inguruan. Historian garrantzia izan zuten hiri batzuk bisitatu genituen eta Shangai ere bai. Gogo guztiarekin Euskal

Etxea ikusi nahi genuen, baina hiru ordu pasa ondoren taxi batean, ez genuen aurkitu. Eskerrak taxiak merkeak diren! Shangai hiri moderno handia da, baina Pekinek xarma gehiago du niretzat.

Beste bidaia bat egin nuen Pekinetik hasita, Xendura joan ginen panda hartzen erreser-

barik handiena ikustera. Beste batean Xi'anera joan nintzen buztinezko gerlariak ikustera. Hiria harresiz inguratuta dago. Gerlariak lur azpian zeuden, baina ikusteko moduan jarri dituzte eta orain teilatu moduko baten babespean daude. Enperadore baten hilobia zen eta gerlari guztiekin joan nahi zuen jakin gabe hurrengo bizian zer topatuko. Ikaragarria da: 8.000 figura zeuzkaten garbituta, eta milaka gehiago dago hilotan inguruan. Gizon batek kasualitatez aurkitu zituen nekazari lanak egiten ari zela. Ikusi genuen gizona; orain errege bezala dute, eta turistek aurrean ateratzen dute gorpildun aulkian, trofeo bat bezala. Etxea jarri diote, ospea du, eta, zaharra denez, estatuaren kontura bizi da.

Txinako harresia, Gugong Hiri Debekatua, Hong Kong... bisitatu nituen. Leku asko.

#### Erraza zen bidaiatzea?

Trenak merkeak dira eta Txinan barrena ibili ginen, motxila eta gida liburu hartuta, arazorik gabe. Inoiz ez genuen beldurrik sentitu, ez eta norbait egiten ari ginen begiztatzen ari zenik ere.

Gabonak bertan eman genituen. Ez dituzte ospatzen, baina AEBko ohitura guztiak bereganatzen ari dira, komertzioari dagokionez, behintzat. Txinako urte berri eguna Tibet aldeko ostatu batean pasanuen. Bertako andreak janari pila prestatu zuen kanpotar guztiontzat, eta gurekin ospatu zuen eguna. Inoiz ez dut hainbeste petardo eta etxafuero entzun! Eta oso parrandazaleak dira: mozkor-mozkor eginda ikusten dira asteburuetan eta festa egunetan, zutik eutsi ezinean.

Karaokea dagoen tokietan ere asko edaten da. Guri ez zitzaigun gehiegi gustatu, baina txinatarrei asko gustatzen zaie. Koadrila gela batean sartzen da eta edaten eta kantatzen pasatzen du denbora.

#### Aberats eta pobreen arteko alde handia ikusten zenuen?

Pekinen mota guztietako



I. ONDARRA

#### Txinan barrena ibili naiz motxila eta gida liburu eskuan hartuta, beldurrik gabe

jendea ikusten da, baina ez dut hurbiletik ikusi nekazarien egoera. Pekinen aberatsen auzoa badago, enbaxaden inguruan, eta kanpotar zein txinatar dirudunak ikusten dituzu. Bertako dendek ere produktua askoz ere garestiago dituzte, Europar baino garestiago. Bestalde, eskaleak ikusten dituzu kalean. Parkeetan, adibidez, 15 bat langileko talde bat ikusia dut, denak makurtuta guraize mota batekin belarra moztzen. Jende asko da eta lana eman behar zaio. Horren ondorioz, eskulan asko egiten da, ez baitu merezi makinak sartzea.

#### Berriro joango zinateke?

#### Mundua hain da handia, eta bizitza bakarra dut ahal den gehiena ikusteko

Dudarik gabe. Dagoeneko planak egiten ari naiz. Txinera etorkizuneko hizkuntza omen da, eta lanerako ondo etorriko litzaidake. Lana bilatu nahi dut han. Ari naiz curriculum bidaltzen. Hemengo enpresa asko daude Txinan eta hemengo bat han izatea gustukoa izaten dute, urte pare baterako, adibidez; baina jendea bilatzea zaila egiten zaie.

Txinak harritu egin nau, gustatu egin zait. Ehuneko ehunetan da desberdina: kultura, hizkuntza, ohiturak, bizimodua, dena. Gero, bertan egonda, dena merke egiten zaizu. Oraindik nahiko atzeratuta dago mendebaldearekin konparatuta, eta horrek

bere xarma badu. Maiatzean joango naiz berriro oporretan, eta lana bilatuko banu... Gelako laguna eta beste batzuk ere han daude oraindik. Egin beharra daukat! Ez naiz damutzen; batere ez. Nire bizitzako esperientzia handiena izan da, letra handiz idatzita. Beste leku batzuk ezagutzera joateko gogoia ere badut. Ez naiz hemen denbora asko egongo. Mundua hain da handia eta bizitza bakarra daukat. Mugitu egin nahi dut eta ahal den gehiena ikusi.

#### Gurasoek zer zioten?

Gogoia nuen ikusteko nola hartuko zuten. Aitak ez zeukan aparteko gogorik Txina ezagutzeko. Nik haien falta sumatzen nuen, baina beharrik ez. 10.000 kilometrora zaude, baina teknologiari esker maiz hitz egiten genuen, ia egunero. Baina amak bai, ikusi nahi ninduen eta, azkenean, biak etorri ziren eta lilaratuta bueltatu ziren etxera.



MAITE ZUBELDIA ETA JULEN ONDARRA | IERAREN GURASOAK

# “Fisikoki zein psikikoki ondo egoteko bidea bilatzen dute”

**Azaroaren bukaeran joan ziren Maite eta Julen alaba bisitatza. Inolako dudarik gabe, espero ez zuten sorpresa atsegina oparitu zien bidaiak.**

## Hegazkinetik jaitsita, zerk harritu zintuzten?

**Julen:** Kontaminazioak. Urrutira begiratuta ikusten da beti lainoa: hiriak sortzen duen gain, Gobi basamortutik etortzen zaie hautsa eta hondarra. Eta trafikoa: autoz betetako erreka ematen zuen errepideak!

**Maite:** Nik alaba baino ez nuen ikusten eta haren eskutian jarri nintzen hotelera iritsi arte. Han, bai, konturatu nintzen dena neurri handikoa zela: landutako jade puska erraldoia, sarrera ikaragarri zabala...

## Lasai aritu zineten leku batek bestera turismoa egiten?

**J:** Bai, batzuetan Ierarekin eta besteetan bakarrik. Ez genuen inolako arriskurik sentitu. Hotela hiri erdian zegoen eta, gauza asko egiteko, oinez joaten ginen, edo taxiz, oso merkea baita. Kanean inork ez zuen ingelesez egiten eta keinuz eta gida liburu batekin moldatzen ginen.

**M:** Jendeak lasaia eta alaia dirudi. Nire ile kizkurra ikusita, begira gelditzen ziren asko eta batzuk argazkiak atara zizkidaten. Dena umore onez.

## Nola antolatuzenituzten egunak?

**J:** Plan bat genuen egun bakoitzeko. Batean, adibidez, mendiak eta haranak zeharkatzen dituen harresi ospetsua bisitatu genuen, turista txinatar mordo batek bezala. Pekin laua da, baina harresi



Kongmiao, Konfuzioren tenploa bisitatu zuten Julenek eta Maitek.

KARKARA

## Izugarrizko egitura politikoa eta kaosa, biak batera ikusten dituzu

inguruko mendiak ikaragarriak dira. Jadealantzeko fabrika bat eta hilobiak ere erakutsi zizkiguten egun hartan.

Hirian bertan parke handi-handiak daude. Lehen, enperadoreen bizilekuak ziren eta dena antolatuta zegoen enperadoreak ondo bizitzeko. Milaka morroi, soldadu, animalia eta abar zituzten jaten emateko. Gaur, parke publikoak dira eta, nahiz eta jende

## Gustura joango nintzateke berriro, trenez, pare bat hilabete pasatzera ingurua ezagutzen

artean egon, erreza da bakardadea eta isiltasuna topatzea, hain dira handiak.

## Eta jateko esperientzia?

**M:** Merkea, eta sorpresa handia, jakina! Gehienetan makiltxoekin jaten genuen, baina batzuetan, gosez hilko nintzela ikusita, tenedorea eta labana eskatzen nituen. Zapi-rik ez zuten jartzen. Jatetxe batzuk nahiko *kutreak* ziren,

nahiz eta gidan azaldu, baina eranzen zenuen arropa guztia plastikozko fundarekin babesten zuten denetan, zuk alde egin artean. Gero, prezioa ikusita, barre egiten genuen: hirurok ondo afalduta, 9-10 euro dena, eta benetan ikaragarri berezia eta elegantea zen batean 10 euro bakoitzak. Zerbitzariak ez zuten eskupekorik hartu nahi izaten nagusiak baimena eman arte.

## Kontrasterik aurkituzenuten mundu modernora hain azkar egokitzen ari den hartan?

**M:** Kontrastea ikusten zen saltokien artean. Leku batzuetan diru mordo mugitzen zen eta besteetan postu txikiak jartzen zituzten edozein gauzatxoarekin bi zentimo irabazteko. Ez genuen pobrezia latzik ikusi, baina ondo dakigu Txinaren zati txiki bat baino ez genuela ikusi. Pekinen ikusi genuen bai fisikoki bai psikikoki ondo egoteko bidea bilatzen duela jendeak, eta gustatuko litzaidake jakitea beste hirietan ere lortzen duten.

**J:** Jendeak esaneko joera badu, baina, bestalde, kalean eta parkeetan nahi duen guztia egiten du. Edozein izkintan gelditzen dira estiramentuak egiteko, flauta jotzeko, dantzatzeko... adin guztieta-koak, gainera. Izugarriko egitura politikoa baten mende bizi dira, baina kaosa da nonahi.

## Berriro joateko gogorik?

**J:** Inolako zalantzarik gabe. Ierak lana bilatuko balu, trenez joango nintzateke, eta pare bat hilabete pasako nituzke han, alabarentzat etxeko lanak eta janaria egiten eta Pekin eta inguruak nire erara ezagutzen.

## ADARRETATIK HELDUTA

## Ezerezaren jabe

**A**pirilaren 3tik 11ra bidaia zagok Sahara-ra, animatzen al haiz? Ez zen galdera makala izan, ezta erantzuteko zaila ere. Apirilaren 4rako Arrasateko 360 aretoan *Doa* eta *The Unseen* talde amerikarren kontzertura joateko plana egina nuen, baina bidaiarena aukeran jarrita...

Toki berriak ezagutzeko beharrezkoa iruditu zait beti. Gainera, Sahara bezalako lurralde-herrialdeak zirrara berezia sortzen zidan lehenetik ere. Baina, zer eta zen bateraino dakigu Saharaz? Afrikan dagoela, eta basamortua dela, bai, eta Marokorekin oraindik konpondu gabeko gatazka politiko-militarra duela. Nik askoz gehiago ez nekien, behintzat.

Behin hara joatea erabakita, apirilaren 6, 7 eta 8rako lantokian jai eskatu behar. Ez zen arazorik izan. Krisia...

Janaria, arropa, eskolarako tresnak... denetik eraman genuen. Zer gutxiago, astebete familia baten etxean igaroko genuela kontuan hartuta. Oriotar askok ere sahararrentzako laguntza eman ziguten. Hainbat udaratan herrian izandako haurrek emandako goxotasunak oraindik herrian fruitua ematen duela ikusi nuen une hartan. Baina dena ez zen 20 kiloko maletan kabitzen.

Konturatzeko heldu zen apirilaren 3a, ostirala. Gustura nintzen, lanera joan beharrak ez zidan beste egunetako atzerakadarik ema-



MANEX BARRENETXEA  
AMESLARIA

**Hainbat udaratan herrian izandako haurrek emandako goxotasunak oraindik herrian fruitua ematen duela ikusi nuen**

**Hain ederra iruditu zitzaidan basamortua... ezin dut hura definitzeko hitzik aurkitu**

ten. Nik uste, bidaia errefuxiatu kanpamenduetara izango zela pentsatzearekin minutuak bailitzan pasarazten zizkidala orduak.

Arratsaldeko 3etan nuen beste 6 kideekin zita. Lanetik garaiz aterako nintzela uste, baina... usteak erdia ustel, eta azkenean beti bezala presaka. *Ez ote nauk inoiz aldatuko?! Ni nauk ni potrolasaia!* Behin denok bilduta, maletak hartu eta...

Bidaiaz ezin asko esan, erdia lo egin nuen eta. Pixka bat aspergarriak iruditu zitzaizkidan aireportuko itxaronaldiak. Nahiko urduri ginen, generaman guztia fakturatzetik lortuko ote genuen zalantzan. Ezin kexatu; juxtu, baina dena barrura. Ondoren, metal detektagailua. Gorroto dut makina hori. Segurtasunagatik beharrezkoa izango da, baina beti ahazten zait metal pusketa-aren bat kentzea.

Bilbotik Tindufer. Bertan ziren zain gure egonaldiko etxe berrietara eramango gintuzten kamioiak. Igotzearekin batera, Algeriako muga pasa eta basamortuan murgildu ginen, hondarrak zeruarekin bat egiten duen lurralde-herrialde haretxen bila.

Hain ederra iruditu zitzaidan basamortua... ezin dut hura definitzeko hitzik aurkitu. Hondarretan galdu dut azkenean burua. Baina bada sahararengan hunkitu ninuduen gauza bat, denekin konpartitu nahiko nukeena: ezeren jabe ez izanda ere, duten guztia eskaintzen dutela; arima eta guzti.

Gu bai garela ezerezaren jabe; eta jabetzaren morroi.

## NIRE HONETAN

## Gabezian, esperantza

**U**rteak luze joan direnean eta bereziki gogorak egin direnean, aldaketa garaiak datozenean, aurrekoa dena ezabatu eta gabeziak azkar betetzeko gogo bizia izaten omen du jendeak. Garrantzi handia ematen zaie halako aldaketei eta, askotan gutxi ikusten diren gauzak badira ere, berebiziko indarra omen dute aldaketa sakonena sortu eta eragiteko.

Horrela gertatu zen Franco hil zenean eta, esaterako, kale izen gehienak aldatu ziren toki askotan: baita Orion ere. Diktaduraren kiratsa zerien gizon handienak kendu -Primo de Rivera, Calvo Sotelo...- eta usain herrikoia zabalduko zutenekin osatu ziren gaur ditugunak. Izen berriak aukeratzeko ere izan ziren gorabeherak eta badira, handien izenak jarri nahi ez eta, guztion duintasuna kontuan izanez eta berdintasuna bultzatuz sortu nahi zen gizartea irekiagoa, zuzenagoa ekarriko zuen esperantzaren jarritakoak: arrantzale, arraunlari, pilotari, abeslari...

Baina, hara gabezia, lehen bezala orain, Orioko kaleen artean bakarra da emakume izena duena: Arantzazuko Ama.

ANA G. DE TXABARRI

 **kutxa**

*Izarra* **ERREBELATU DIGITALA MOMENTUAN**

 **ESKAITZEK HARRITUKO ZAITUZTETE ETORRI!**

*Bideo Produksioa* 



## MOILA BAZTERRETIK

## Krisi bikoitza



AIORA LARRAÑAGA

2009a ez da izango inola ere euskaldunon urtea. Are gehiago, uste dut askok eta askok hemendik urte askotara ere gogoan izango dugula, Euskal Herrian krisi bikoitza abiatu zen urtea bezala. Bat gutxi ez eta geuri

bi etorri behar... Nork esango ote zigun kontsumismoa puri-purian zegoen garaian, krisi bikoitza zetorkigula gainera. 2008a krisi ekonomikoaren oihua entzunez bukatu genuen eta 2009a ere horrelaxe hasi dugu. Hala ere, pastelari azken ukitua emateko, 2009ko Eusko Legebiltzarerako Hauteskundeek sorpresa mingotsa ekarri digute: krisi politikoa. 100.000 lagun boto eskubidea urratu dute eta hori dena demokraziaren ize-nean egin dutela ere entzun behar izan dugu, gainera. Hori da marka geurea!

Benetan sinestezina iruditzen zait egoera hau eta zenbaitetik ezkerro naizela esango duten arren, benetan diot, kakalarriak jota nago!

Egunero izaten dut lanik gabe edota EREa ezarri dieten

langileek egiten dituzten aldarrikapenen berri. Ez dakit gairontzekoei, baina, niri behintzat, etorkizuneko lehendakariaren aurpegia etortzen zait horrelakoetan burura, Patxi Lopez jaunarena, alegia. Lopez izango al da gai egoera honi aurre egiteko? galdetzen dut nire baitan. Izan ere, PSE-EEK eta PPK egin nahi dituzten aldaketen artean, eguraldiaren mapa eta politika linguistikoa aldatzeko nahia behin eta berriz azaldu digute; baina bizi dugun egoera ikusita, euren mamu euskalzale eta abertzaleak ahaztu eta krisi ekonomikoari aurre egiteko neurrietan pentsatzen hasi behar lukete, agian.

Barne gogoeta egiten dudan bakoitzean dardarka hasten naiz etalazaitzeko gauza politetan pentsatzeko

**Egunero izaten dut lanik gabe edota EREa ezarri dieten langileek egiten dituzten aldarrikapenen berri eta etorkizuneko lehendakariaren aurpegia etortzen zait burura**

agintzen diot neure buruari, bestela horrelako batean gaitoxotu egingo bainaiz preokupazioak jota eta. Agian, bizi duguna zuzenean eragiten didan lehen krisialdia delako izango da; ez dakit, denborak esango du.

**Ohiko Herri Ikastola**

**IKASTOLAK** ondorengo soziala duen irakaslea behar du DBHn amatasun ordezkapena betetzeko mailazetik aurrera:

- Titulazio: Biologia, Fika edo Ingeniaritza;
- EGA.

Curriculumak helarazteko azken eguna **apirilaren 26a**.  
Informazio gehiago ikastolako web orrialdean:  
[www.ohokoikastola.net](http://www.ohokoikastola.net)  
Postaz: Ohiko Herri Ikastola, Abestari 8, 20.610 ORIO.  
E-mailez: [orio@ikastola.net](mailto:orio@ikastola.net)  
Faxez: 943 13 09 38

**MA\*NA** lokutorioa

internet • bidaiaketa DHLekin (dirua, paketeak, dokumentuak...) • telefono delak (internazionalak, herrialdeak, lokalak) • mugitoren errotze • mugitoren liberalizazio • telefono txartelak • faxa • Fotokopiat • edonerra

Endaia enparantza, 1  
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Tel./Fax: 943 13 50 82  
[loca-mana@euskalnet.net](mailto:loca-mana@euskalnet.net)

**uranga**  
autozerbitzua

**Aliprox**

Eusko Gudari, Ialca 13-15  
ORIO  
943 13 31 75

**AMILIBIA**  
ONTZIOIAR, S. L.

lari portuan proiektu eta instalazioak

gri mailako lehiaketarako irabazitzaileak

Olasnagazgia auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
[amilibia@amilibia.com](mailto:amilibia@amilibia.com)  
[www.amilibia.com](http://www.amilibia.com)

**LURDES**  
IRIARDEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**Ligaso**  
dekorazioa

Eusko Gudari, 46  
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 83 81 11

**LUXARBE**  
igeltzeritza

Igeltzeritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 53 59 00

# KARKARA

## Karkara: esperientzia ederra

**A**naia Beñat jaio zen urte berean jaio zen KARKARA, 89an. Kultur etxeko gelan oraindik ere zintzilik egongo da hamargarren urteurrenaren aitzakian, 89ko kintakoei aldizkari pila eskuetan dituztela ateratako fotoa. KARKARAREN kintako batzuk han; baina anaia ez. Orduan ere burua izango zuen gure Beñatek auskalo non!

Eta gela berean bada beste *picture* zahar bat, zuri-bel-tzean, 89koa izango da hura ere. Han agertzen dira aldizkariaren sortzaileak, gazte-gazteak guztiak, gehienak betaurreko handi-handiekin.

Orduan sartu zen KARKARA nire bizitzan, sortu zenean, orain 20 urte, nire anaiarekin batera. Ordudanik irakurri dut, hasieran hilabetero, hamabostero gero. Eta asko apreziatzen nuen garai hailetan aldizkaria, baina hura benetan maitatzen bertan lanean hasi nintzenean ikasi



ENERITZ ODRIOZOLA  
IRAKASLEA

nuen. Hori gertatu zela badira dagoeneko sei urte –nire Curriculum Vitaeak hala dio behintzat. Geologia ikasketak bukatu, eta urte betera-edo hasi nintzen KARKARAN lanean, erredakzioan, Pat eskoziarrarekin aurrena eta Patxi Zaparrokarekin gero. Pazientzia ederra behar izan zuten lan-kideek –Patek, Patxik, Jabik, Mirenek eta Anak– nire ida-

tziak gora eta behera. Bazuten eta zer hobetu! Urte eder-rak izan ziren haiek, oparok, asko ikasi nuen. Geroago egunerokoan balio izan didaten gauza asko barneratu nituen orduan. Gipuzkoa eta Bizkaia ere, hobeto ezagutu nituen. Zenbat bilera izan ote genituen orduan, Asteon zela, web orria sortu behar genuela: Bergara, Aretxabaleta, Andoain, Durango, Aramaio.

KARKARAN lanean ari nintzela herriaren bihotzean nengoela iruditzen zitzaidan, saltsaren erdian, potajearen osagai bat gehiago nintzela sentitzen nuen. Positiboa izan zen, herritar asko elkarrizketatu nituen. Maiz udaletxera joaten nintzen, ikastetxeetara, ambulatiora, portura, kofradiara, fabriketara. Gustura aritu nintzen, baina potajearen erdian, jomugaren erdian ere bazaude, eta beti egongo da norbait sardeska-rekin hartu eta jan nahiko zaituenik. Beti. Hori ez nuen hain

gustuko. KARKARAREN, oro har aldizkariaren, kritiko asko zeuden, eta nire lanen, idatzien, kritikoak ere sortzen hasi ziren. Horiek min handiago egin zidaten. Kritikak erraza da egitea, denok egiten ditugu eta egin behar ditugu. Baina zertaz ari garen jakin gabe zenbat hitz egiten dugun alfer-alferrik. Hitz egin edo idatzi aurretik bi aldiz pentsatuko bagenu, sikiera.

Eta, orain, sei urte beranduago ikastolan ari naiz lanean, herriaren bihotzean jarraitzen dut, potajearen erdian, eta berriz ere kritikatu sentitzen naiz. Bada oraindik ere sardeska-rekin hartu eta jango nauenik. Kritikatu eta batzuetan iraindua ere bai KARKARAKO zenbait idatzitan. Paradoxikoa ezta?

Ai, nire anaiak duen ahazteko bertutea banu...

**“KARKARAN lanean ari nintzela herriaren bihotzean nengoela iruditzen zitzaidan, potajearen osagai bat gehiago nintzela sentitzen nuen”**

Carmen eta Txomin  
ARRANDEGIAR  
  
943 83 05 37 / 943 83 27 47

Faroko bakailaoa  
daukagu  
**ITSAS  
MENDI**  
*gustizialak*  
Euzko Gudari 6 - Tel. 943 24 87 74 - Orio



**A&E**  
The Academy of English  
Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio  
Tel. 943 00 42 44  
943 83 51 91

  
Agentea: Olariaga  
**TORREALDAY**  
aholkularitza  
Berezitasunak:  
✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.  
✓ Aseguru artekaritza.  
✓ Finken administrazioa.  
Bazalde 4, behin. Tel. 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 99 www.atctorrealdays.com e-mail: olariaga@olariaga.com

  
**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA  
Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO





## Plaieroetako txapeldun

**G**aur egun oraindik bizirik dagoen txapelketako irudia duzue goikoa: Zarauzko plaieroetako, hain zuzen ere.

1966-67 denboraldian txapeldun geratu zen koadrila gustura ageri da fotoan, taldeari dagozkion kopak aurrean harro erakusten dituztela, betiko erretratua ateratzeko prest. Jubenil kategorian jokatzeko zuten ordu hartan.

Goitik hasita, ezkerretik eskuinera: Rikardo Aristondo, Rino Iruretagoiena, Santiago P. Calleja, Eulogio Murgiondo, Juan M. Gonzalez, Jesus M. Arregi, Migel Olasagasti, Luis Dominguez, Juan Angela Lekuona, Garbiñe Martikorena, Jose Migel Makazaga, Santiago Zaldúa, Pedro Egibar, Teodoro Martikorena, Juan Jose Zaldúa.

Behean: Jose Kruz

Exposito, Patxi San Sebastian, Florentino Martikorena, Migel Anjel Arrizabalaga, Arantxa Arregi, Jose M. Errasti, Bizente Diez eta Juan Diaz.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:  
FLORENTINO MARTIKORENA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

# KARKARA

**Zaragueta Eskola Orrio**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**ZASS**

elkarrekin irratia

lispaindegia eta estetika mistoa

San Miquel 2      Telf.: 943 833170

**Kalna Loroazintza**  
Luzuetan Loroazintza

kenu leroazintza 647028485

lortzeki eta lortzen dituen eta maitatzen diren sintonak eta kimaketa espezializatuak.

## KRITIKA



Apirilaren 30a arte egongo da zabalik artista askoren lanekin osatutako Oteizaren inguruko erakusketa.

KARKARA

## Oteiza gogora ekartzeko modu atsegina eta ederra

Orioko kultur etxe-areto-aretoetan denak dozentatik gora artisten lanak izango ditu ikusteko zain. Oteiza da denentzat aitzakia, baina haren eraginpekoak ez ezik beste jatorriko eta estiloko egileak ere badaude erakusketa horretan. Batzuk Jorgeren beraren irudia edo haren lanen antza duten obrak ekarri dituzte; beste batzuk, ordea, nahiago izan dute erabat libre heltzea erakusketan parte hartzeko gonbitari.

Denetik aurreratu duzue, era askotako arte lanak eta,

gehienetan, oso gustagarriak, zuzenak eta sinpleak direlako. Hortxe ditugu gustu handiz egindako eskulturak Ramon Rotetarenak bezala; edo Xabier Egañaren collage indartsuak; M. Jose Lacadenaren konposaketa deigarria edo haren anaia Josebaren kolore erakargarriak; Iñigo Manterolaren lan ilunak, berak egiten dituen ohikoetatik hain urruti daudenak; Manu Urbietaren burdin-egur ederrak; Tapiaren paisajeak edo Koro Arratibealek agintarien itxurakeriatan ibili behar horri egi-

ten dion kritika zuzena...

Erakusketa antolatzeko erabilitako baliabide urriak ikusita, batek baino gehiagok pentsatuko du ez zaiola arrazoirik falta: egilea nor den jakiteko, izenarekin etiketa lanaren ondoan jartzea, behinik behin, erraz egiteko zerbait iruditzen baitzaigu.

Eguneroko zereginak utzi eta irudimenari eta espiritu kritikoiari tartetxoa egiteko aukera paregabea duzue hementxe bertan.

Ez zarete damutuko.

ANA G. DE TXABARRI

## IKASLEAK IDAZLE



MAITE ARRUTI |

DBHKO 4. MAILA

## Kirol aukera

Gaurkoan, kirol aukerei buruz hitz egingo dut. Orion dago arazo askorik kirola egiteko, asko baitaude: futbola, arrauna, pilota, softbola... Baita ikastolak antolatutako hainbat kirol ere: futbola, saskibaloia, eskubaloia... Orioko gazte ugarik egiten dute kirola, gutxi batzuk izango dira ez dutenak ezer egiten.

Orio hain herri txikia izan arren, bertatik jende asko irten da kirolari ona dena, bai pilotan, bai arraunean, bai futbolean, bai softbolean... Horrez gain, herriko jendeak asko animatzen du eta gazteen jarraitzaile asko daude, kaletik joan eta zer moduz kirolean galdetzeak edo noiz ditugun partidu, estropada... galdetzeak animo asko ematen dizkigu eta eskertzen da.

Hori ikusirik, Orion kirol jarraitzaileak gairela ikusten da.

**iñaki argazkiak caperochipi**

ezkontzako asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**ZUMIKTZA** ille-aparregia

irankura pedunira  
irankura depilazio berria eta er...

**SOLARIUM** tel: 943 83 17 66

**ZAPATA KONPONKETAK**

Lanegintza: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 18:00  
Larazuetatik: 09:00 - 13:00  
Herriko enpresa, Oriu

tel/fax: 943 89 00 69

Bikotaketa, 4 - 20.810 ZARAUZ

**URBIDE**

ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA BAINU ERAKUSKETA



## HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Urtean 50 kontzertu inguru eman arren, ahotsa da kontrolatzeko instrumenturik neketsuena. Beraz, bolada batzuk afoniko samar ematen ditut. Beste batzutan, berriz, ahotsa bere tonuan izaten dut; arraunlariek bezala... kar, kar.”

## UNAI AZKARATE

Musikaria  
Gaztezero aldizkaria  
2009ko apirila

“Igande goizetan partida izanda ezin ezin ajerik eduki! Hala ere, irteten naizetan ongi kontrolatzen dut nire burua.”

## AINHOA MATEOS

Futbolaria  
Gaztezero aldizkaria  
2009ko apirila

## OSPAKIZUNA



## Jubilatu eta pentsionistak

Martxoaren 25ean, eguraldia lagun, primerako eguna pasa zuten Orioko jubilatu eta pentsionistek, urtero bezala, beren eguna ospatzeko programa antolatu baitzuen Zaharren Babes Lekuak.

12:00etako mezaren ondoren, Aginaga sagardotegian 331 lagun —inoiz baino gehiago— bildu ziren bazkaritarako eta bertaratu ziren guztiek La Caixak eta Kutxak emandako opari bana jaso zuten.

## ZORITXARRAK!



## Matraka ureztatzaileei

Ostiral Santuan, ohitura denez, hainbat herritar kalbarioetara deia egiteko matraka jotzera irten zen goizaldean. Ondo ari ziren, baten batek, autobus geltoki inguruan, leihotik baldeka ura bota eta *Ganberros, queremos dormir!* marru egin zien arte.

Susto ederra hartu zuten matraka jotzaileek; sustoa eta disgustoa.

Ureztatzaileak ez zuten matrakararen ohitura ezagutuko agian; edo lo jarraitu nahiko zuten, lanera joan beharko zuelako... baina matraka, txaranga edota txistularien diana izan, errespetatu ditzagun ohiturak eta jaiak.

**islada**  
BIZIKLETEN ZENTROA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya  
Balearen kalea, 2. behea Oriko 20810  
Tel: 943 133 856  
e-mail: isladazero@hotmail.com

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**  
Igeltseritza

699 46 76 21  
943 13 10 37

**TAILER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**  
TXORREDEAK - BALBULAK

Santiago ezuzoa - 18 postakutxa  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**  
AENOR R  
EUSKALNET 180 9000  
Esterako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

**URAITZ**  
burdindegia

Enpleatzaile: Txaranga 943 8318 97

**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net  
Telefona: 943 8312 36 Euzko Gudarai, 5

ORAIN DELA 25 URTE

# Mutiozabalen plano bilduma Jaurlaritzako liburu batean

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Lurralde Politikarako Departamentuak bi liburu aurkeztu zituen apirilaren 10ean: lehena, *Puertos menores del País Vasco* non Oriokoa agertzen den; bigarrena, *La construcción naval en el País Vasco en el siglo XIX*. Azken horretan, Eusko Jaurlaritzako Ondare Historiko eta Liburutegietako zuzendariak, Aingeru Zabalak, 1982an Orion aurkitutako bela-ontzien erakuntzarako XIX. mendeko planoei buruzko ikerketa sakona egiten zuen; Mutiozabalen plano bildumaren gainekoa, alegia.

## ZINERIK EZ ORION

Orioko zineklubak denboraldi baterako emanaldiak eten egin zituen diru faltagatik. Lokalaren alokairuak eta pelikulen garestiak, batetik, eta ikusle eskasia, bestetik, izan ziren horretarako arrazoiak. Itsas Etxea inauguratzean hasi ziren berriro filmak proiektatzen.

## CASABOUNEKO ESTROPADA INTERNAZIONALEAN ORIO

Orio, Arraun-Lagunak, Urkirolak, Hondarribia, Santiagotarrak eta Koxtape arraun elkarteetako 164 arraunlari gipuzkoarrek hartu zuten parte Akitaniako aulki mugikorreko ligako estropadan. Casaboune herrian, Frantziako selekzioak entrenatzen zuen lekuan, jokatu zen lehia, api-

**1984**  
**APIRILA**

**Orioko Arraun Elkarteak izan zen Frantziako selekzioaren erritmoari jarraitu zion bakarra, baina ezin izan zuen garaipena lortu**

**Europako Nekazaritza Batzordeko Arrantza azpibatzerdeak euskal arrantza-ontzien eskubide historikoa onartu zuen**

rilaren 8an.

Lemazaindun lauokan, Orioko taldea izan zen Frantziako selekzioaren erritmoari jarraitu zion bakarra, baina ezin izan zuen garaipena

lortu. Skull bikoitzean, ordea, Redondo eta Etxeberriak irabazi zuten. Gainontzeko talde gipuzkoarrak ere fin ibili ziren, bigarren postu batzuk lortu baitzituzten.

## ARRANTZARAKO ESKUBIDEA

Martxoaren 7an Frantziako itsas armadak bi euskal arrantza ontzi tirokatu zituen nazioarteko ur-eremuan. Ondorioz, Europar Batasuneko Nekazaritza Batzordeko Arrantza azpibatzerdeak bile-ra egin zuen eta euskal arrantza-ontzien eskubide historikoa onartu zuen apirilaren 5ean, bertan arrantzatze ohitura izan zelako ordurarte. Harritzekoa bada ere, Frantziako ordezkariak baiezko boza eman zuten bileran.

## LEHEN HERRI URRATSA

Apirilaren 11n, lehenengoz, Herri Urrats ospatzeko asmoa azaldu zuen Seaskak eta maiztaren 13an egin zen Senpereko lakuan. 23 ikastola ziren orduan Iparaldean.

## ATHLETICEK LIGA IRABAZI

Espainiako futbol ligako 83-84 denboraldia irabazi zuen Athleticek azken jardunaldian Realari 2-1 irabazita, San Mamesen. Bi urte lehenago, Realak irabazi zuen liga Aotxan, azken jardunaldian Athleticen aurka irabazita. Madrilen tongoazen hizpide. Euskal talde batek irabazita-ko azken liga izan zen hura.

## JAIOTAKOAK

- Nadir El Maimouni El Ghailani, Orion, apirilaren 10ean.
- Martxel Uribarri Manzidor, Orion, apirilaren 6an.
- Txomin San Sebastian Garcia de Vicuña, Orion, martxoaren 29an.
- Ibai Arostegi Gonzalez, Orion, martxoaren 28an.

## EZKONDUTAKOAK

- Jose Ramon Cuenca Garayalde eta M. del Carmen Elvira Hernandez, Orion, apirilaren 18an.
- Natalia Zubillaga Lopez eta Rosana Perez Lena, Orion, martxoaren 20an.
- Alexia Oliden Albeniz eta Joseba Garro Arregi, Orion, apirilaren 18an.

## HILDAKOAK

- Nicasia Unanue Atorrasagasti, Orion, apirilaren 4an. 86 urte.
- Luis Tamayo Paquico, Orion, apirilaren 23an. 71 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
943 83 15 27



WARRANTIA  
**PATXI OLIDEN**  
PREBIBITUA

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txakorra, txerizo, krakotak...

**PATXI OLIDEN**

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

FISIOTERAPIA - Garkaitz Arriategi eta Natalia Wierzbien  
NUTRIZIONISTA - Gabiela Aizpuru

**sinergia** investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

ONINTZA MANTEROLA | OLAXKA TALDEAREN IRAKASLEA

# “Eszenatokian kantatzeari gustura hartu zioten haurrek”

**Orioko Herri Ikastolako Olaxka kantu taldeko irakaslea da Onintza Manterola. Duela aste batzuk Haur Kantari Jaialdian izan dira aurrenekoz, eta nola joan zaien galdetu diogu.**

## Zer moduz irakasle?

Urtearen hasieran edo deitu zidaten ikastolatik, Olatz Zugastik ezin ziola taldeari nahi bezainbeste denbora eskaini eta haren ordezkari izan nahi nuen galdetzeko. Argi dago ezin duelako ez duela Olaxkarekin jarraitu, ez nahi ez duelako, eta beti dago laguntzeko prest. Askok eskertu behar diot.

## Zenbat lagun joan zineten Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdira?

13 bat urteko 8 lagun eta ni joan ginen Azkoitira jaialdian parte hartzera, apirilaren 4an. Mutil bakarra daukat zaharrenean taldean —10 bat urteko dozenatik gora haurrek osatutako taldea ere badut eta mutil dezente ditut hor— eta belarri ikaragarri onekoa gainera. Esku soinu ere jotzen du taldearentzat, lehiaketa honetan bezala.

## Txikienak ez al ziren animatu?

Jolas moduko bat da kantua berentzat eta topaketa batean parte hartzeko azkarregi da, ez daude prestatuta.

Taldekide guztiak elkartzea ere ez da erraza izaten adin horretan: gaztetxoek katekesiko eskolak izaten dituzte, adibidez, eta ez zait bidezkoa iruditzen horrelako ekitaldi-tara abeslari batzuk bakarrik joatea.

Datozen urteetan ikusiko da taldeak aurrera egiten duen edo ez, kantuari garrantzia



Hirugarren diskoa ateratzeko asmoa du Olaxka taldeak.

KARKARA

**Badakizu...  
gauzak norberak  
nahi dituen  
moduan ateratzen  
direla ikustean  
harrotu egiten  
gara**

eman eta ganoraz, serio, lan-tzen hasi nahi duten. Ordu-rarte, ez.

## Noiz hasi zineten jaialdirako prestatzen?

Alde batetik, topaketa antolatzen duen Euskal Kantuzaleen Elkarte zuzenda-

**Hirugarren diskoa  
egiteko asmoa  
dugu eta  
ikastolaren eraikin  
berriaren  
inaugurazioan ere  
kantatuko dugu**

ri Ainhua Ansarekin harremana dut nik eta haren bitartez jakin nuen jaialdiaren berri.

Bestalde, ikastolako irakasle Uxo Sorazuk txapelketa batetara joateko animatu gintuen eta orduan bertan heldu zitzaidan eskuetara

Haur Kantarienean izena emateko orria eta saiatzea erabaki genuen. Gainera, Gipuzkoan ez da beste topaketa-txapelketarik egiten; hau da, hori edo bat ere ez.

## Parte hartzeko erabakia nola hartu zuten haurrek?

Gustura hartu zuten, gogoz.

Hasiera batean binaka edo banaka joan gintezkeela pentsatu genuen, horrelako taldeetan beti baitaude besteak baino gehiago nabarmentzen direnak. Baina lotsa kontuak zirela-eta, ez zuten nahi eta talde gisa joan ginen azkenean.

Urduritasuna nabaritzen zen eszenatoki gainera entsaiatzera igo zirenean; baina, gustua hartu ziotenean, ez zuten jaitsi nahi izan. Beste proba bat eta beste bat eskatzen zuten. Badakizu... gauzak norberak nahi dituen moduan ateratzen direla ikustean harrotu egiten gara.

Topaketan bertan ere oso gustura aritu ginen, bai haurrek eta baita neronek ere. Kanta bakarra—umeez Olatzekin eta Iñaki Gurrutxagarekin osatutako Oria—abestu genuen. Oso ondo ikasia eta landua dute eta sentimendu gehiagorekin kantatzen dute, letra eurek egina delako. Derrigorrezko baldintza euskaraz izatea betetzen zuenez... egoki-egokia zen.

## Berriz itzultzeko moduan, hortaz?

Esperientzia ona izan da eta zergatik ez? Momentuz, entsaiatzen jarraituko dugu.

## Aurrera begirako proiekturik ba al duzue?

Hirugarren diskoa egiteko asmoa dugu eta ikastolaren eraikin berriaren inaugurazioan ere kantatuko dugu.



TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>06:14</b>	<b>06:44</b>	<b>07:14</b>	<b>07:44</b>	<b>08:14</b>	<b>08:44</b>	<b>09:14</b>	<b>10:14</b>	<b>11:14</b>	<b>12:14</b>	<b>12:44</b>	<b>13:14</b>	<b>13:44</b>	<b>14:14</b>
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>14:44</b>	<b>15:14</b>	<b>15:44</b>	<b>16:14</b>	<b>16:44</b>	<b>17:14</b>	<b>17:44</b>	<b>18:14</b>	<b>18:44</b>	<b>19:14</b>	<b>19:44</b>	<b>20:14</b>	<b>21:14</b>	<b>22:14</b>
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
<b>Aia-Orio</b>	<b>06:15</b>	<b>06:45</b>	<b>07:15</b>	<b>07:45</b>	<b>08:15</b>	<b>08:45</b>	<b>09:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
<b>Aia-Orio</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>	<b>22:45</b>
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: [www.mugitu.com](http://www.mugitu.com)

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan koadro argidun ordutako autobusek Ubletik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gutxiak pasatzen dira. Koadro lurrutako ordutak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landebusek darama. Zerbitzuan buruzko informazioa lortzeko zerbait bide daude:

[www.landebus.com](http://www.landebus.com)      TF: 943 24 01 34      sms-a 5380 zerbakira

ITSASOA

Apirila	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
24	04:35 eta 17:53	10:40 eta 22:58	
25	05:13 eta 17:29	11:16 eta 23:37	●
26	05:52 eta 18:07	11:54 eta _____	
27	06:34 eta 18:49	00:18 eta 12:34	
28	07:19 eta 19:35	01:03 eta 13:18	
29	08:10 eta 20:28	01:52 eta 14:08	
30	09:10 eta 21:32	02:49 eta 15:06	
01	10:22 eta 22:50	03:55 eta 16:15	◐
02	11:45 eta _____	05:13 eta 17:34	
03	00:11 eta 13:04	06:32 eta 18:53	
04	01:25 eta 14:07	07:42 eta 19:59	
05	02:27 eta 14:58	08:38 eta 20:52	
06	03:18 eta 15:42	09:25 eta 21:38	
07	04:02 eta 16:21	10:06 eta 22:20	
08	04:42 eta 16:57	10:43 eta 23:00	

ZAINTZAKO BOTIKAK



APIRILA/MAIATZA

- 24an, Azaldegi.
- 25ean eta 26an, Mutiozabal.
- 27an, Zulaika.
- 28an, Etxeberria.
- 29an, G. Artiñano.
- 30an, Azaldegi.
- 1ean, Larrañaga.
- 3tik 8ra, Lasa.
- 9an eta 10ean, Larrañaga.

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

**TXANGOIA**

■ Maiatzaren 5ean, San Juan Elizpek antolatuta, Errioxara txangoa, elkarteko bazkideentzat. Irteera: 08:30ean.

■ Izen ematea: maiatzaren 3a baino lehen, elkartean bertan.

**LEHIAKETAK**

■ Euskaraz Gazte, Orioko Udalak antolatuta. Izena emateko azken eguna: apirilaren 24a. Lanak Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar dira.

■ Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta. Lanak aurkezteko azken eguna: maiatzaren 15a. Helbidea: Andoaingo Udala; XXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria; Goikoplaza, z/g; 20140 Andoain. Informazio gehiago: 943 30 08 30 telefono zenbakian.

**BERTSOLARI TXAPELKETA**

■ Maiatzaren 8an, Gipuzkoako Eskolarteko 29. bertsolari txapelketa. Orioko Herri Ikastolan eta Karela kiroldegian.

**BABES LEKUA**

■ Maiatzaren 9an, Zaharren Babes Lekuak antolatuta, Baztanera eskurtsioa. 27

**Hondarribiatik Oriora**

Txurumuski taldeak 3 eguneko ibilaldia antolatu du DBHko gaztetoentzat, maiatzerako.

Hondarribiatik Oriora etorriko dira aurten. Hilaren 27an, 18:30ean egingo duten bileran emango dute txangoari buruzko argibide gehiago.

Izena, berriz, apirilaren 24a baino lehenago eman beharko da, Ametsa gaztelekuan.

euro balio ditu txartelak eta maiatzaren 11n erosi behar da 16:30etik 18:30era.

**AZTERKETA TEKNIKOA**

■ Apirilaren 23an, ziklomotoeen azterketa teknikoa, plazan. Aldez aurretik txanda hartu behar

da, Udaltzaingora deituta: 943 83 00 28.

**GAZTETXEA LORATU**

■ Apirilaren 25ean, OKK gazte asanbladak antolatuta, futbolin txapelketa ibai ondoko plazan, 17:00etan.

Gaztetearen aldeko elkarretaratzea plazan, 19:30ean. Kanpaldia Etxeluzean, 20:00etan. Afaria eta gaztetearen antolaketa buruzko asanblada irekia, 21:00etan. Kontzertu akustikoa eta sormen gaua, 23:00etan.

■ Apirilaren 26an, zuhaitzak landatu. Etxeluzearen ondoan, 11:00etan.

**ARETO FUTBOLA**

■ Apirilaren 26ean, Nazional B ligan, Laskorain-Orioko Tabernak. 12:00etan Tolosako Usabal kiroldegian.

**FUTBOLA**

■ Apirilaren 25ean, 1. regional kategorian: Tolosa B-Orio. Jubenilen ohorezko kategorian, kopa eta jaitsieran: Lagun Onak-Orio. Kadeteen 1. kategorian, kopa: Orio-Sanse B. Infatilen 1. kategorian, igoera: Orio-Oiartzun. Emakumezkoen kopa: Orio-Zestoa. F-11n, kopa: Orio-Real Union.

■ Maiatzaren 2an, 1. regional kategorian: Orio-Mondragon. Jubenilen ohorezko kategorian: Orio-Aloñ Mendi. Kadeteen 1. kategorian: Intxaurren-Orio. Infatilen 1. kategorian: Aloña Mendi-Orio. F-11n: Orio-Zarautz.

**AZOKA****Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com.

**GALDUTAKOAK**

■ Martxoaren azken astean, Karela kiroldegiko txartela galdu nuen. Aurkitzen duenak dei dezala, mesedez, 943 83 26 19 telefono zenbakira.

■ Giltza sorta galdu nuen apirilaren 14an, plaza eta

ambulatorioaren artean. Jaso duenak udaltzaingora eramatea edo 943 13 26 52ra deitzea eskertuko genuke.

■ Duela aste batzuk ordulari bat galdu nuen plazatik Aita Lertxundi kalera bitartean. Lotus markakoa da eta niretzat balio handikoa. Bilatuz gero, dei ezazue, arren, 943 83 03 97ra.

**ALOKAIRUA**

■ Orion bizitzeko lekua alokairuan hartuko nuke, bakarrik ordaintzeko modukoa. Bestela, elkarbanatzeko interesik badu inork, elkarrekin bila genezake:

bizileku@gmail.com.

**LAN ESKAINTZA**

■ Emakume bat behar da uda honetan, goizez, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tf: 620 91 22 01.

**LAN BILA**

■ Etxeko lanak egiteko edo haurrak eta zaharrak zaintzeko neska eskaintzen da. Berehala hasteko. Tf: 638 40 66 45.

■ Giza Zientziak Enpresan lizentziatua naiz, Irakaskuntzarako Gaitasun Ziurtagiria dut eta Haur magisteritza ikasten ari naiz. Klase partikularrak

emango nituzke. Tf: 653 704 516.

■ Ekitaldietako estruktural jartzen eta auto pilotuetako gidaritzan esperientzia dut eta lan bila nabil. Berehala hasteko. Tf: 634 872 383 (Alberto).

■ Familia edota edadetuak zainduko nituzke gau eta egun. Eskarmentua dut. Tf: 686 04 27 32.

■ Geriatrian titulatu naiz eta edadetuak, haurrak... zainduko nituzke. Zainketetan esperientzia dut eta badakit sukaldean. Tf: 639 40 94 21.

■ Edozein lan hartuko nuke: 639 40 94 21.



**KARKARAK erredakzioan aritzeko  
langilea behar du.**

**Lan poltsa osatuko dugu.**

**WANTED**

**AMATASUN BAJA HARTUKO  
DUENA ORDEZKATZEKO  
LANGILE BAT BEHAR DA,  
URTEA BUKATU ARTE**



**KARKARA: 943 83 15 27**

**karkara@karkara.com**